

POSTMODERNO XELEBREAK

Artista gazteen gorabeherak

~~URTAR~~ OAK



Negarra

Amaia Agirre

Ohituta nago alaba negarrez ikus-
tera. Haserrea eta mina adierazte-
ko duen modu bakarra da, baita
ezinegona jasangaitz zaionean
ere. Nola lasaitu asmatzeak ni ere lasaitu
egiten nau. «Zer ote du?» galdera erretori-
koari erantzuna jartzea atsegin dut.

Nire negar hotsak ere ez nau gehiegi
kezkatzen, nire malkoen erreka ez baita
inoiz itsasoratuko. Ia ziurtasun osoz esan
dezaket ez dela inoiz laku iraunkor eta es-
tatiko bihurtuko. Nire izatearen aro alda-
keta bezala bizi ditut nire negar saioak eta
nire intziriak. Hutsik sentitzen naizenean
edo hutsen bat egin dudanean barrua hus-
teko estrategia baino ez dira. Kontraesane-
an eta autodestrukzioan oinarritutako

madarikazioen ondorio. Nik nire buruari
eragindako minak, ordea, ez nau egunero-
kotasunean mintzen nauten ikuskizunek
baino gehiago larritzen. Biharamunean
irribarrez oroitzeko gai naizen negarral-
diak baino ez dira nireak, zorionez. Bai
orain bai gero izatea da sosegu gabeko
hustu beharra. Eta hori ez da huskeria.
Hustasuna baizik. Eta horrek asaldatzen
nau, baina ez aldarte etenkariek. Ni, egia
esan behar badut, etenik gabeko negarrek
kezkatzen naute.

Ohituta nago nire ondorengoaren begie-
tan malkoak ikustera, baina ez nire aurre-
koen begi gorrituak ikustera. Oso gutxitan
izan dut gurasoak negarrez ikusteko zoria,
baina eurek uste baino gehiagotan antze-

man diet horretan aritu direla. Ezkutuan
egin dutena begi haziak agerian utzi izan
dute, eta bistakoa da niri ere begiak bete
eta bihotza lehertu zaizkidala. Gorroto dut
«zer gertatzen da?» galderari «ezer ez»
erantzuten dioten unea. Jakinaren aurrean
ezjakin bezala tratatzeak amorrarazi egi-
ten nau. Nik eurei esaten nizkien gezurrek
baino min handiagoa eragiten didatela
iruditzen zait. Ez dut harrizko bihotza eta
hondarrezko kontzientzia izateko gaitasu-
nik. Zeharkatu ezinezko murruean aurrean
mutu geratzen naiz. Maukarik gabeko soi-
nekoa bezain besamotz, eta silaba gutxiegi
dituen puntua bezain eskas. Minari beldur
diot eta beldurak mina eragiten dit, baina
zer pasatzen da? Ezer ez. Pasatuko da. •